



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO OTSAILAREN 25EAN GOIZEKO 9:00ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/01/28KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2020ko urtarrilaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- BIDEGAIN ETXEAREN GOIALDEAN EGINDAKO OBREI (MENDIKO LURREI EUSTEKO HARRI-LUBETA ERAIKITZEA) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zbkia: HZ.04/2014-0188

JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jaunak, Bidegain etxearen goialdean baimenik gabe egindako obren (mendiko lurrei eusteko harri-lubeta eraikitzea) lehen erabilera baimena eskatu eta hondakinen kudeaketa bermatzeko jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko otsailaren 24ean, JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jaunari, Bidegain etxearen goialdean (N-634 errepidean 2,15 kilometro puntuan), mendiko lurrei eusteko harri-lubeta eraikitzeke udal baimena ematea erabaki zuen.

Ikusirik JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jauna baimenik gabeko obrak burutzen ari zela, 2015eko maiatzaren 29an, Alkatezak 2015/0488 dekretuaren bidez, obrak gelditzea erabaki zuen.

Ondoren, dagokion izapidetzea jarraitu ostean, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko otsailaren 23an, Jesus Maria Aizpurua Lopetegi jaunari, Bidegain etxearen goialdean baimenik gabe egindako obrak legeztatzeke eta hasitako obrei amaiera emateko (harri-lubeta eraikitzea) udal baimena eman zion.

LEHEN ERABILERA BAIMENA



Usurbilgo Udala

Orain berriz, obra amaierako ziurtagiria aurkeztearekin batera interesatuak egindako obren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko 2016ko martxoaren 15ean ezarritako 956,10 €-tako fidantza (IE 8-2016) itzultzeko eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2020ko otsailaren 18an lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio. Hondakinen kudeaketa bermatzeko jarritako fidantzari dagokionez, Ekhiñe Ebiguren Azkune udal arkitektoak 2017ko martxoaren 14an emandako txostenean, lehen erabielra baimena ematearekin batera itzul litekeela adierazi zuen.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jaunak, Bidegain etxearen goialdean egindako obrei (mendiko lurrei eusteko harri-lubeta eraikitzea) lehen erabilera baimena ematea honako baldintzarekin: lehen erabilera baimen honek ez du inolaz ere Bidegain etxearen azalera eraikiaren handitzea baimentzen.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2016ko martxoaren 15ean ezarritako 956,10 € €-tako fidantza (IE 8-2016) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: 0081 4345 51 0001000705.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaitzari, zergen kitapena egin dezan.

3.- BELMONTE KALEA 3 ETXEKO BEHE SOLAIRUAN ETXEBIZITZA EZARTZEKO UDAL BAIMEN EMATEA.

Batzarkideek puntu hau mahai gainean uztea erabaki dute.

4.- ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO OSIÑA KALEA 6AN MARMOLA, HARRIA ETA ANTZEKOAK MANIPULATU ETA KOMERTZIALIZATZEKO EZARRITAKO JARDUERARI IREKITZEKO BAIMENA EMATEA

Esp. Zenbakia: HZ.07/2010-0326

Tokiko Gobernu Batzarrak 2011eko otsailaren 8an, Marmoles Ibarren ordezkartzan diharduen Sergio Rodriguez Ibarra jaunari, Zumartegi industrialdeko Osiña kalea 6an marmola, harria eta antzekoak manipulatu eta komertzializatzeko jarduera ezartzeko udal baimena ematea erabaki zuen.



Usurbilgo Udala

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2010-0326

ESKATZAILEA: MARMOLES IBARRA – Sergio Rodríguez Ibarra

JARDUERA MOTA: Marmola, harria eta antzekoak manipulatu eta komertzializatzea

NON KOKATUA: Osiña kalea 6 – Zumartegi industrialdea

Orain berriz, Sergio Rodríguez Ibarra jaunak, Zumartegi industrialdeko Osiña kalea 6an marmola, harria eta antzekoak manipulatu eta komertzializatzeko ezarritako jardueraren irekiera baimena eskatu du. Une honetan jarduera DUCHSTONE S.L.U. enpresaren izenean dago.

JARDUERAREN IKUSKAPEN-BISITALDIA

Aurkeztutako dokumentazio aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia egin ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkateari

JARDUERA SAILKATUAK

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO OSIÑA KALEA 6AN MARMOLA ETA BERE DERIBATUAK ESKUZTATZE ETA MERKATARATZERAKO JARDUERA PROIEKTUARI HIRIGINTZA TXOSTENA

ESKATZAILEA: SERGIO RODRIGUEZ IBARRA

ESKAERA: Osinalde industrialguneko Osiña kalea 6 an marmola eta bere deribatuak eskuztatze eta merkataratzeko jardueraren irekiera baimena.

KOKAPENA: Osiña Kalea 6, Osinalde Industrialdea, Usurbil

ESPEDIENTE ZENBAKIA: **HZ.07/2010-0326 JARDUERA SAILKATUA**

AURREKARIAK

- 2010eko uztailaren 16an SERGIO RODRIGUEZ IBARRA Zumartegi industrialdeko Osiña kalea 6an marmola eta bere deribatuak eskuztatze eta merkataratzeko jarduera proiektua aurkeztu zuen Usurbilgo Udalean.
- 2010eko uztailaren 16an jarduera erakusketa publikoan jartzen da.
- 2010eko abuztuaren 16an Jarduera Sailkatuen ALDEKO osasun txostena iristen da.
- 2010eko abuztuaren 31ean Oier Otxoantezana Berriozabalogoitia udal arkitektoak txostena idazten du.
- 2010eko irailaren 14ean Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak, Marmoles Ibarra enpresak, Zumartegi industrialdeko Osiña kalea 6an ezarri nahi duen jarduerari aldeko informea eman du.
- 2011ko urtarrilaren 10ean Ingurumen Sailak ALDEKO txostena adierazten du, beharrezko diren zuzenketak adieraziz.
- 2011ko otsailaren 8an Usurbilgo tokiko Gobernu Batzarrak jarduera ezartzeko udal baimena ematen du.
- 2011ko apirilaren 1ean Sergio Rodriguez Ibarra jaunak MARMOLES IBARRAren izanean Obra amaierako ziurtagiria aurkeztu du eta irekiera baimena eskatu.
- 2018ko maiatzaren 29an udal arkitektoaren txostena neurri zuzentzaileak



Usurbilgo Udala

ezarritako dokumentazio osagarria eskatuz.

- 2019ko ekainaren 6an interesatuak dokumentazio osagarria aurkezten du.

TXOSTENA

Sergio Rodriguez Ibarra jaunak MARMOLÉS IBARRAren izenean, Zumartegi industrialdeko Osiña kalea 6an marmola eta deribatuak manipulatzeko eta merkataratzeko jardueraren irekiera baimena eskatu du. Aurkeztu den dokumentazioa: eskaera orria, ezarritako neurri zuzentzaileen memoria eta ziurtagiriak.

Eskaera eta dokumentazioa aztertuta honakoak esan daitezke:

- **EZARRITAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK:** Bete dira.
- **BERTARATZEA:** Bertaratzea egin da 2020ko otsailaren 7an. Jarduerak ezarritako baldintzak betetzen dituela ikusi da.
- **DOKUMENTAZIO OSAGARRIA:** Honako dokumentazioa eskatu zitzaien:
 - *Suteen aurkako babeserako neurrien instalazioa abian jar daitekeela egiaztatzeko akta, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak zigilatua.*
 - *Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturiko elektrindarraren hornikuntza sareko loturako buletina.*
 - *Ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina.*
 - *Teknikari gaituak emandako ZIURTAGIRIA aurkeztu behar da, egiaztatzeko jarduerak edota instalazioak bat datozela aurkeztutako proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin eta ondo betetzen dituztela ingurumenarekiko bete behar guztiak.*Dokumentazioa aurkeztu da eta ontzat ematen da.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, MÁRMOLÉS IBARRAren jarduera (gaur egun DUCHSTONE S.L.U. enpresaren izenean) legeztatzeari **ALDEKO** txostena idazten zaio.

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe. Udalarari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2020ko otsailaren 7an.
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: DUCHSTONE S.L.U. (IFK: B75118687) enpresak, Zumartegi industrialdeko Osiña kalea 6an marmola, harria eta antzekoak manipulatu eta komertzializatzeko ezarritako jarduerari irekitzeko baimena ematea.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Jarduerak Tokiko Gobernu Batzarrak 2011eko otsailaren 8an ezarritako neurri zuzentzaileak beteko ditu. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ezarritako honakoak hain zuzen:

1. Erakunde Tekniko aginpidedunek oro har aplikatzeko ematen dituzten berariazko arauak bete behar dira.
2. Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 10. artikulua dioenez, lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik antzematen bada, egoera horren berri berehala eman behar zaie Udaletxeari eta Ingurumen Sailburuordetzari, horiek hartu beharreko neurriak zehaztu ditzaten.
3. Zarata kutsadura saihesteko neurriak jarriko dira martxan, eragin akustiko txikiagoa duten teknologiak aplikatuta, kontuan izaki Eskuragarri dauden Teknikarik Onenak, hau da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarri diren eta kutsadura gutxien sortzen duten teknologiak, eta aintzat harturik zarataren igorlearen ezaugarriak, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak eta gainerako araudiak ezarritako zarata mugak zorrotz beteta, zonakatze akustikoari, kalitate xedeei eta jaulkitze akustikoei dagokienez.
4. Dardarak aldameneko nabe eta lokalen egiturei transmititzea ekiditeko, beharrezkoa den makinerian dardaren aurkako elementu egokiak ezarriko dira.
5. Jarduerak sor dezakeen kutsadura atmosferikoa murrizteko eta auzokideak gogaitu ditzakeen usainik ez sortzeko, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu titularrak instalazioen diseinuari eta ustiapenari dagokienez.
6. Saneamendua banatzailea izango da eta ondo definituak eta independenteak izango diren bi sare edukiko ditu:
 - a) Pabiloiaren estalkietako urak jasoko dituen poluitu gabeko euri-uren sarea.
 - b) Komunetatik eratorritako hondakin-uren sarea. Bertako isuriak saneamendusarera konektatuko dira. Irekitzeko lizentzia jaso aurretik, titularrak kolektorera Isurtzeko Baimena (erakunde aginpidedunek emandakoa) aurkeztu beharko du Udaletxean.
7. Komunetan sortutako isurketa likidoak baino ez dira egongo.
8. Marmolaren, harriaren eta eratorrien mekanizazio lanetan sortutako industria-urak zirkuitu itxian ibilarazi beharko dira. Zirkuituko iragazketa sistemaren beharrezko mantentze-lanak burutu beharko dira.
9. Sortutako hiri edo udal-hondakinak, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean ezarritakoaren arabera kudeatuko dira udal-araudiaren kalterik gabe.



Usurbilgo Udala

10. Jardueran sortutako hondakin ez-arriskutsuak kudeaketa-instalazio batera lehen aldiz eraman aurretik, jardueraren titularrak informazio hau eman beharko dio ingurumen-organoari, proposatuko kudeaketa-bidea egokia den egiaztatu ahal izateko: sozietatearen izena, IFK (Identifikazio Fiskaleko Kodea), jarduera, ekoizpen-prozesuak, erabilitako lehengaiak, sortutako hondakin ez-arriskutsuen kopurua eta motak, Europako hondakin-zerrendaren arabera identifikatuak, eta proposatutako kudeaketa-bidea. Adierazpen horretarako, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko denaren, VI. Eranskinean agertzen den inprimakia erabili beharko da.
11. Olio-hondakinak eta oro har, arriskutsu kontsideratutako gai/prestakinen hondakinak, horiek gorde dituzten ontziak, kutsatutako iragazkiak, xurgatzaileak, trapuak eta kotoiak, eta gai arriskutsuak izan ditzaketen hodi fluoreszenteak, merkuriozko lanparak, inprimatzeko tonerrak, etab. deuseztatu nahi izatekotan, dagozkien bereizketa-baldintzak betez jasoko dira, hau da, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/98 Legeak, 833/1988 Errege Dekretuak eta hau aldatzen duen 952/1997 Errege Dekretuak eta hondakin arriskutsuei buruzko gainerako araudian ezarritakoa jarraituz. Eraman aurretik estalita biltegitratu beharko dira.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak formalizatutako hondakin arriskutsuen sortzaile Baimena aurkeztu beharko da Udaletxean. Aurrerantzean urtero hondakin arriskutsuen sortzaile deklarazioa aurkeztu beharko da aipatutako sailean.
12. Aurreko paragrafoan adierazitakoaren aurka, urtean 10.000 kg baino gutxiago sortzen badira Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailean dagoen hondakin arriskutsuen sortzaile txikien Erregistroan egin beharko da inskripzioa.
13. Hondakin-olioak Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioek kudeaketari buruzko irailaren 29ko 259/1998 Dekretuak dioena jarraituz bilduko dira, erabilitako industria olioek kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuak adierazten duenaren kalterik gabe.
14. Aurkezten dituen ezaugarri kimikoengatik lurzorua eraldatu edo kutsatzeko gai den edozein produktu moten (beharrezko lehengaiak eta/edo jardueran sorturiko hondakinak) biltegitratzea euren arteko bateraezintasuna kontua izanik egingo da, beti ere biltegitratutako produktuei iragazgaitz, erresistente eta eraldaeina izango den, eta istripuz gerta daitezkeen isurketei eustea ahalbidetzeko eran diseinatu eta instalaturikoa egongo den lurzoru gainean, era berean hauek jasotzeko sistema batez hornitua egongo delarik. Honetaz gain, haizea, euria edo ibilgailuen joan-etorrien ondorioz produktuak biltegi gunetik kanpora arrastatzea edo isurtzea ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira.
15. Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea



Usurbilgo Udala

kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.

16. Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

5.- 2019KO NORGEHIAGOKA ERREGIMENEOAK EZ DIREN KIROL EGITASMOAK BURUTZEKO BEHIN BETIKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA.

Ikusirik

2019ko kirol arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 12an argitaratu ziren eskaerak aurkezteko urriaren 30era arteko epea emanez.

5 eskaera aurkeztu ziren.

Teknikariaren txostena kontutan hartuta, Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak ebazpen proposamena egin zuen eta alegazioak aurkezteko epea zabaldu zen. Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01)
- Usurbilgo Udalak norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko diru-laguntza oinarriak (GAO 2019/02/12)
- Usurbilgo udal.eko 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2019ko Norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza kopuru hauek xedatzea eta ordaintzea.

1.- Laguntza berezien laguntzetarako:

| | Ekintza | € |
|-------------------|------------|------|
| Joxe Mari Etxarri | Giza Proba | 475€ |

2.- Taldeetako prestakuntza teknikoen laguntzetarako:

| | |
|------------|-----|
| Usurbil KE | 35€ |
|------------|-----|



Usurbilgo Udala

3.- Kiroletako oinarrizko osasun miaketetarako:

| | € |
|---------------|--------|
| Usurbil FT | 140€ |
| Usurbil KE | 65€ |
| Baxurde txiki | 1.309€ |

Bigarrena: Gastua aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

1 4300 481 341 00 03 Laguntza Bereziak (A 301-2019)
1.4300.481.341.00.04 Kirol teknikoaren prestakuntza (A 307-2019)
1.4300.481.341.00.08 Kirol mediku azterketa (A 304-2019)

Hirugarrena: Interesatuei akordioen berri ematea.

Laugarrena: Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:40etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.